

Alde indartsuen, mehatxuen, alde ahulen eta aukeren azterketa (D.A.F.O.)

Tresnaren deskribapena

Tresna honek aukera ematen du arazoak elkarrekin aztertzeko edota ebaluatzeko . Eskaintzen duen markoan lau kategoria erabiltzen dira (alde indartsuak, alde ahulak, aukerak eta mugak), arazoak aztertzeko, zehazteko, eztabaidatzeko eta erregistratzeko.

Jarduera honi esker, ikastetxe edo institutuko kideek azter dezakete autoebaluazio batean jasotako informazioa, alde indartsuak eta ahulak zehazten, testuinguruaren arabera, eta aukerak eta mehatxuak adierazten.

Metodo hau eraginkorra da ikastetxeko jarduera orokorrean berrikusten denean, eta bereziki azterketarako gurasoak, irakasleak, ikasleak eta laguntza langileak aintzakotzat hartzen direnean. Eraitza onak ere eman ditzake, talde murriztuago batek arlo mugatua aztertzen duenean.

Tresnaren helburura

- ✎ Markoa eskaintzea, egoera zehatz bat aztertzeko.
- ✎ Pertsona askoren partaidetza sustatzea.
- ✎ Balizko irtenbide (aukerak) eta murrizketei buruzko (mehatxuak edo mugak) eztabaida erraztea.
- ✎ Informazio kualitatiboa biltzea.

Abantaila garrantzitsuenak

- ✎ DAFO izeneko azterketa azaltzea eta erabiltzea erraza da eta komunitateek ere erraz uler dezakete.
- ✎ Erabil daiteke informazioa jasotzeko eta aztertzeko, gero diagnostia, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal dadin.
- ✎ Tresnaren atalik onena da suposatzea edozein arazo edo egoeratan bi alde (baiezkoa eta ezezkoa) kontsidera daitezkeela, eta beraz errazten du bi alde horiei buruzko eztabaida sustatzea. Ondorioz lagundu ere egiten du oinarria ezartzen, negoziazioak egin eta konpromisoak har daitezen.
- ✎ Eztabaida irekiak, sakonak, zentratuagoak eta argiagoak errazten dira, adostasunera heldu behar baita, alde indartsua eta ahula zer den zehazteko.
- ✎ Taldekide batek alde indartsutzat jotzen duena, beste batek ahultzat jo dezake.
- ✎ Aukeren sormenari, alde indartsu eta ahulei eta ager litezkeen mugei buruzko hausnarketa suspertzen du.
- ✎ Tresna honek errazten du ere arazo zehatz baten inguruko ideia GUZTIAK azter daitezela.
- ✎ Sakon eta luzaro erabilia, tresna honek jarrera eta perzepzioen aldaketak erregistratu ditzake.

Tresnaren erabilera

- “DAFO” prozedurari buruzko sarrera laburra egiten da. Geroago bi ordu beharko dira partehartzaileei tresnaren erabilera azaltzeko, jarduera gauzatzeko eta informazioa aztertu eta laburbiltzeko.
- Beharrezko materialak hauexek dira: azterketa egiteko orriak, errotulagailuak eta paper orri handiak edo arbela.
- Zein den tresnaren helburu azaldu. Aztertu nahi den arazoa edo egoera ezarri. Hauek orokorrak edo zehaztuak izan daitezke. DAFO azterketa arazo gehienak aztertzeke erabil daiteke, horiek ulergarriak eta argiak badira.
- Partehartzaileei kategorien definizioa azaldu. Hauxe da horien deskribapena:

Alde indartsuak Arrakasta izan duten atalak dira, besteei harrotasunez zabal daitezkeenak, edonor asebetetzez harrotu nahi lukeen atalak. Egoera, arazo edo pertsona zehatz baten atalik onenak dira.	Alde ahulak Arrakastarik izan ez duten atalak dira, batek nahiago lukeenak besteek ez ezagutzea . Egoera, arazo edo pertsona zehatz baten atalik txarrenak dira.
Aukerak Aldaketa positibo bat egiteko ahalmenak dira, alde indartsuak zein ahulak kontuan hartuta. Aukerak gauzak aldatzeko ahalmena eskaintzen dute, beti ere hobekuntzara zuzenduta.	Mehatxuak Mugak dira, aukerak lortzerik eragozten duten gauzak. Aldaketa gauzatzetik eragozten dute. Muga batzuk gainditu daitezke, beste batzuk, ordea, ez.

- Egoera edo arazoa nolakoak diren, bi eratan bidera daiteke DAFO azterketa. Lehenik alde indartsu guztiak azter daitezke, eta gero batzuk besteen ondoren atal ahul guztiak, aukera guztiak eta muga guztiak. Edo atal indartsu bakoitza, gero ahul bakoitza, etabar, atalez-atal. Tresnaren erabileraren “froga” txikiaren bidez ezagutu ahal izango da kasuz kasu emaitza onenak emango dituen ikuspegia.
- Azterketa aztertzaile bakoitzak egiten du 10 minututan zehar, alde indartsuak, ahulak, aukerak eta mehatxuak zehazten. Eta hauek osoko erakundeari zein arlo zehatz bati buruzkoak izan ditezke.
- Emaitza guztiak elkarri aurkezten zaizkio, eta eztabaidatu ondoren zerrenda bakar bat egiten da, hiru atal inportanteenak izenburu bakoitzaren azpian dituenak.
- Emaitzak orman aurkezten dira, horien laburpena egiten da eta azkenik horiei buruz eztabaidatzen da.
- Akordio bat lortu baino lehen, baliteke puntu zehatz batzuei buruzko eztabaida sakon eta luzea egin behar izatea. Eta akordioa lortzen denean, puntu bakoitza arbelan edo orrian idazten da.

Kontuan hartu beharreko arretak, tresna erabiltzen denean

- Gai zailak sor litezke. Orduan komenigarria izango lizateke jorratuko den gaia aldatzea eta gai horri buruz geroago eztabaidatzea. Jarduera honen bidez murriztu daiteke bestelako arazoak sor litezkeen arriskua.
- Eztabaida taldekide batzuk kontrolpean zuzendu dezakete. Eztabaida zuzentzen duenak kide batzuen eskuhartzea eska dezake. Edo jarduera taldeka ere egin daiteke, ikuspegi ezberdinak ematen dituztelarik.
- Eztabaidatzen dena hitz gutxitan laburtzea zaila izan daiteke. Zuzendariak egiatzatuko du beti partehartzaileak ados daudela ondorioekin.

Oharrak

- ✎ Zenbait gairi izenburu ezberdinak esleitu lekizkieke. Esate baterako, batz besteko adineko pertsonak egotea alde indartsuzat (esperientzia luzea) edo ahultzat (aldaketak egiteko zailtasunak) jo daiteke.
- ✎ Lagungarria izan liteke erakundearen menpeko atalak, erraz zehaztu ditezkeenak, erakundearen menpe ez daudenetik, zailz zehaztu daitezkeenak, bereiztea edo banantzea.
- ✎ Planek eta programek era ezberdinez kontsideratu behar dute kontrolpean izan daitekeena eta kontrolatzerik ez dagoena. Batzuetan uste baino errazago eragin daiteke egoeretan.
- ✎ Lehentasunak ezartzea ezinbestekoa da. Zerrenda luzeak luburtu behar dira, jardueraren planifikazioa egiteko oinarri gisa erabili ahal daitezen.

Erabilera testuinguruak

- ✎ Eskola komunitate osoa aztertzen denean, oso erabilgarria suertatzen da talde mistoak osatzea, erakundearen interes guztiak ordezkaturata egon daitezen eta jarduera gauzatzeko planifikazioa estamentu guztien beharretik sor dadin.
- ✎ Tresna hau oso erabilgarria da berrikuste prozesu orokorrean, Organo Gorena eta Batzorde Pedagogikoko markoan. Kasu honetan prozesua informalagoa izan daiteke eta eskola erakundearen ikuspegi ezberdinak egituratzen lagunduko du.

**Alde indartsuen,
mehatxuen,
alde ahulen eta
aukeren
azterketa
(D.A.F.O.)**

Aztertu nahi den gaia

--

Alde indartsuak	Alde ahulak
Mehatxuak	Aukerak